

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000004588

Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0193**Xedea****Kasinoko lokalen errentamenturako prozedura bertan behera ixtea.****Aurrekariak**

Lehenengoa: 2021eko azaroaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Kasinoko lokalen errentamendua esleitzeko espedientea onartzea eta lizitazio prozedura irekitzea onartu eban.

Bigarrena: Lizitazioaren iragarkia 2021eko abenduaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: Behin lizitazioa iragarrita, lizitazioa bera zalantzak ipini da, baldintza agirieta jasotako baldintzengatik.

Argudioak

Lehenengoa: Baldintza teknikoen 3. Atalean, jardueraren deskribapena jasotzen da eta, bertan, lokalen taldeak aipatzen dira.

Baina gaur egun ez dago bermatuta lokal horien talde sailkapena baldintza teknikoetan jasotakoa den, edo beste bat izan behar den eta, ondorioz, errentamentua kolokan ipintzen da, gehieneko talde legez jaso beharrean, izan beharreko talde moduan jasotzen dalako, ez dagoena ziurtatua.

Hori dala eta, baldintza agiriak zuzendu behar dira, errealitatera egokitzeko eta kontratua kolokan ipini ez daiezan.

Bigarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, alkateari jagoko.

Erabagia

Hori guztia dela eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: Kasinoko lokalen errentamenturako prozedura bertan behera ixtea.



BIGARRENA: Baldintza agiriak zuzentzeko agindua emotea Ingurumen Sailari eta Idazkaritza Sailari.

HIRUGARRENA: Prozedura bertan behera ixtearen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagiaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E5000845E300Q9P0S2H9Y9S6

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 09/12/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/12/2021
13:48:54

EXPEDIENTE ::

2021IDA_ERA_0193

Fecha: 16/08/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

